BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4639

EBAZPENA, 2018ko uztailaren 23koa, Osasuneko sailburuordearena, zeinaren bitartez laguntzak eskaintzen baitira neuroendekapenezko gaixotasunen inguruko ikerketa proiektuentzat.

Osasuneko sailburuaren 2017ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez iragarri zen neuroendekapenezko gaixotasunen inguruko ikerketa proiektuei laguntzen deialdia (2017ko azaroaren 30eko EHAA, 194. zk.).

Ebazpen horren 12. artikuluan zehazten denez, Osasuneko sailburuordeak esleituko ditu laguntza horiek, EHAAn argitaratuko den ebazpen baten bidez, Balorazio Batzordeak proposatutakoen arabera.

Aurkeztu diren eskakizunak ezagututa eta Balorazio Batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta harekin bat eginez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean adierazitako ikerketa proiektuak finantzatzea.

Bigarrena.– II. eranskinean datozen eskakizunak atzera botatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, oinarri arautzaileen 12.4 artikuluarekin bat, gora jotzeko helegitea jarri ahal izango dute entitate eskatzaileek.

Barakaldo, 2018ko uztailaren 23a.

Osasuneko sailburuordea,
IGNACIO JESÚS BERRAONDO ZABALEGUI.

I. ERANSKINA

NEUROENDEKAPENEZKO GAIXOTASUNEN DEIALDIRA AURKEZTU ZIREN ETA FINANTZATU DIREN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA

Izenburua: E46K mutazioaren karakterizazio molekularra Parkinson gaixotasunean: euskal mutazioa	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Achucarro Basque Center for Neuroscience	50.233,20
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	27.793,19

Izenburua: Huntington gaixotasunaren eramaile sintomatiko eta asintomatikoetan nahasmendu neuropsikologiko eta neuropsikiatriko larrien detekzio goiztiarrerako aurresale klinikoen identifikazioa	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	53.422,13

Izenburua: Sinukleinpatia genetiko eta idiopatiko oldarkorretan neuroirudia baliatuz erretina eta ikusmena aztertzea Parkinson idiopatiko gaixotasunean fenotipoak eta biomarkagailu aurresaleak identifikatzeko	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	48.974,23
OSATEK	13.310,00

Izenburua: Dementzian jarrera nahasmenduen eta nahasmendu psikologikoen (TCPS) prebalentzia eta karga ekonomikoa analisi epidemiologiko, estatistiko eta machine learning bitartez	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	61.599,78

Izenburua: Nahasmendu metabolikoak eta organuluen asaldura alboko esklerosi amiotrofikoan	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	58.987,16
UPV/EHU	22.128,35

Izenburua: DNA zirkulatzailearen ebaluazioa esklerosi anizkoitzean diagnosia/pronostikorako biomarkagailu gisa	
Entitate onuraduna	**Diru-laguntza (€)**
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	40.500,76

II. ERANSKINA

NEUROENDEKAPENEZKO GAIXOTASUNEN DEIALDIRA AURKEZTU ZIREN ETA BEHAR ADINA AURREKONTURIK EZ ZEGOELAKO ATZERA BOTA DIREN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA

Erakunde eskatzailea	Izenburua
Achucarro Basque Center for Neuroscience	Mikrogliako P2X4R-ren jarraipena ms diagnosirako eta tratamendurako
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Duchenneren muskulu-distrofiarako osagai terapeutiko berrietara zuzendutako hausnarketa
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Dementzia frontotenporalean agertzen diren aldagai genetikoak bilatzea eta gaixoen ezaugarri kliniko desberdinekin dituzten korrelazioa aurkitzea
Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Nahasmendu neurokardiozirkulatorioen balioztatzea parkinsonen gaixotasunean
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Machine learning-eko teknikak aplikatzea narriadura kognitiboaren mekanismo patogenikoak identifikatzeko, prebentzioari begira
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Larruazaletik lortutako schwan zelulen mielina berriz ezartzeko gaitasunaren ikerketa
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	PTEN-PDZ elkarreragina Alzheimer gaixotasunerako itu terapeutiko berri gisa
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Distrofia miotoniko 1 motari aurre egiteko terapia garatzea metformina eta Rycals erabiliz
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Erretinaren distrofia hereditario desberdinek dituzten bide biologiko komunen modulazioa tartean den gena dena dela ere
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Endofenotipoak mugatzea bizkarrezurreko desorekan Parkinson gaixotasuna duten gaixoetan: hezurren mineralizazioaren markagailuekin eta neuroendekapenarekin eta hanturarekin korrelazioA LCR-AN
CIC Biogune	High throughput baheketa bitartez prioien aurkako jarduera duten konposatu kimiko organikoen hautaketa
Barrualde-galdakao ESI	Esklerosi anizkoitza duten gaixoen antsietate-koadroen azaleratzean eta bizi-kalitatean ezjakintasunari intolerantziak duen garrantziaren ebaluazioa: esku-hartze psikologikoa Mindfulnessean oinarrituta
Deustuko Unib.	Parkinson gaixotasuna duten gaixoetan errehabilitazio kognitiboa eta senide zaintzaileen psikohezkuntza batzen dituen tratamendu konbinatua: efikazia epe laburrean eta epe luzean
UPV/EHU	Glaukoma: glaukomarekiko erresistenteak diren neuronen karakterizazio molekularra eta trabekula-sarean begi barneko tentsioa igotzeak izan dezakeen eragina aztertzea

GAIXOTASUN ARRAROEN DEIALDIRA AURKEZTU ZIREN ETA DEIALDIAREN 11.3 ARTIKULUAN ZEHAZTEN DIREN GUTXIENEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ ZITUZTELAKO ATZERA BOTA DIREN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA

Erakunde eskatzailea	Izenburua
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	Funtsezko familia dardararen endofenotipoen karakterizazio klinikoa
Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	CRISPR/CAS9 bidez kalpaina 3 gabeko txerri-eredu bat sortzea lgmd2a-ren fisiopatologia eta bere tratamendua aztertzeko
Araba ESI	Alboko esklerosi amiotrofikoko (AEA) gaixoen arretaren plangintza partekatua
UPV/EHU	Parkinson gaixotasunaren detekzio goiztiarrerako, diagnosirako eta jarraipenerako protokolo berria eta mekanismo neuropatologiko berrien bilaketa